


Arrasate

P R E S S

2000.eko
irailaren 15a
508. zenb.



Yoga: errotutako ohitura

Arrasateko Yoga Elkarteak hogeitun urte bete ditu

IKUSPEGIA: NEKANE SAN MIGEL • EUREN IKUSPUNTUTIK: DENONTZAT
KIROL ELKARRIZKETA: RAUL LEIBA • KULTURA ELKARRIZKETA: IDOIA AGIRRE



G A Z T E E N D A K O L O G E L A K

Euren erar@ nabiga ahal dezaten



Ikasi, jolastu, amets egin, sarean zehar nabigatu... norik aipatu du lo egitea?

TodoMueble KABIAre zure seme-alabek goitik behera gozatuko duten logela aurkituko duzu. Aholkularitza profesionala eta ordaintzeko erraztasun ezin hobeak izango dituzu:

- 6 hilabetetan ordaintzeko aukera, guztia ordaintzeak ekartzen duen deskontuarekin.
- 24 hilabetetan ordaintzeko aukera, interesik gabe eta 6. hiletik aurrera hasita.

Zatuz *TodoMueble* KABIAra. Izugarri gozatuko duzu.

Ordutegia: 09:30-13:00 / 16:00-20:00 Zapatuak barne.



Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel.: 943 79 27 70 ARRASATE

Solaskideak

Udaren bukaerarekin batera, hor ditugu berriz ere denetarik dakiten esatari horiek... Zein merezimendu daukaten ez badakigu ere, iritziaren jaun, jabe, epaile... Euren ahotan eroriz gero, errukiena, gehienetan ez da ez, ezer onik esateko zutaz... eta badakigu, aurrena goitik hasi eta beheraino kakaizten duten horiek, pertsona balioetsuena bada ere, ez du aurrerantzean, haiek zuzendutako "iritzi publiko" horrentzat ezer onik egingen. Gehienetan, gainera, ahotan hartzen dutenari buruz ez dute datu zuzenik izaten... Norbaitek (euren konfiantzakoa, hori bai) esandakoa besterik ez... Eta hamaika gaii buruz ere entzundakoaz aritzen dira, ez landutakoaz, noski (horretarako beste gaitasun eta lanerako gogoia behar da eta)... Salbues-



Nekane San Migel

penak salbuespen (eta ezagutzen ditugu, dudarik ez egin) hala aritzen dira, goizean hasi eta ordu txikiak arte, irritati batetik bestera... azkenengo urte hauetan Euskadi, eta batez ere abertzale edo nazionalista den edonori buruzko "datu zehatzez" eta aholku potoloez burrundaka.

Hala izan omen da beti: Oraindik gogoan dut,

gaztetxo nintzeneko Arrasateko hainbat plaza eta kale bazterretan (gero, asko solaskideak) bai josteko edo "puntua" egiteko orratzarekin, bai mihingainarekin, antzerako abiada hartu, eta aurrean ez zegoen edonori buruzkoak aidean ibiltzen zituzten... zenbat neska eta emakumeren "fama ona" galtzeak!... Baina andre horiek, euren marmarrak ezin bukatuz kanpatorreko edo Zerrajerako

erlojuaren soina entzun, eta jaikitzen ziren... "ene, ordu hori, eta oinndiokan bazkaixa (edo afaixa) poxporuen jaukenat" esan eta "hanka jote baten" abiatzen ziren euren sukaldetara, bronka galanta entzuteratza "...txatxaliói, oin be nunbaiten barriketan egongo hintzenan...".

Geroago, marmar hori "txatxala" horien ondarea ez zela frogatu nuen: Gaztetan, txikiteoan hasi nintzenean, gizon "serioz" osatutako kuadrillatari-ko bateren aurrean edo inguruan egokituz gero, han ere antzerako "iritziak", kontuak, "fama kentze"ak entzuten nituen... Itxura, ez zen marmarretan aritze hori "txatxalen" kontua bakarrik... Baina, ipuin horietan luzatuz gero, ez zuten halako bronkarik, ezta lanik zain... bazkaria edo afaría presto... gehiena ere, larregi itxoin eta gero... izoztuta.

¡Eta orain, bada...begira, antzerako lana egiten duten haseran aipaturiko horiek, ez "hanka jote", ez hoztutako afaría... hamar mila ogerleko jasoten omen dute marmar aldi bakoitzeko... Mejoran goazen seinale? ■

Gaztetxo nintzeneko hainbat plaza eta kale bazterretan aurrean ez zegoen edonori buruzkoak aidean ibiltzen zituzten

"EAJk hartu duen erabakiak ez dio laguntzen Euskal Herrian eta Arrasaten bizi dugun egoera konpontzeko egiten ari garen ahaleginei. Erabakia berkontsidera dezan eskatzen diogu".

Gobernu Batzardea

5.915.321

pezetako kostua izan dute kiroldegiko pilotalekuan egindako konponketek.

Musakolako Kiroldegiko pilotalekuko estalkia irazgaiztu dute, hau da, hezetasunaren aurkako neurriak hartu dituzte eta lan horien hirugarren aldia ordaintzeko Arrasateko Udalak diru kopuru hori onartu du.

AURKIBIDEA

- Ikuspegia 3
- Solaskideak
- Irakurlea idazle 4
- Inkesta 5
- Euren ikuspuntutik 6
- Etxebizitzaren arazoa
- Begi kolpez 7
- Asteko hitzorduak 8/9
- Astearren errepasoa 10
- Orain eta hemen 12/13
- Txutxumutxuak 14/16
- Asteko gaia 17/19
- Bizimoduaren beste ikuspuntu bat
- Aurrez aurre 20/21
- Juan Jose Arrieta
- Hazi eta Hezi 23
- Nagusiekin bizitzea, ikasleentzat irtenbidea
- Kirolak jokoan 24/25
- Kulturaren txokoa 26/28
- Ikusi eta entzun 30
- Azoka plaza 32/33
- Foto zaharra 34

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarola kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Degraças. **Kazetariak:** Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arrojaibe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakileak:** Lorea Agiriano **Kolaboratzaileak:** Mikel Itizar, Karmelo Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gaztaria Sola. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28).
©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Legu-Gordailua:** 1124/68. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua.
Inprimategia: Gerutu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.
Azala: Maddi Trubuelo.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate

- Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- Aretxabaleta 943 79 74 58
- Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazkiak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 71 17 31

ARIMAZUBI

Uste dut honen gainean zerbait idatzia naizela lehenago, baina ez nago seguru. Azken *Arrasate Press*-en (2000-9-8, 507. zenbakia), Uribarri auzoaz dihardutela, Arimazuri izena aipatzen da bi aldiz (egia esan, bietan idazkera desberdinez eta, nire gustuko, bietan oker: Arima Zuri-koak, Arima-Zuri plaza).

Idazkera baino askozaz gehiago, alabaina, niri hemen interesatzen zaidana izena bera da. Zelan da, *Arimazuri* ala *Arimazubi*? Ez dago ezelako zalantzarik: *Arimazubi*. Izen oso zaharra da. Garai batean leku bat zen, inguru bat. Eta geroago baserri batek hartu zuen izen hori. Eta beti agertu da *Arimazubi* edo *Animazubi* moduan. Baserri hori bota zenezan (1966), jendeak beste izen batekin ezagutzen zuen: Gorriko (edo Gorrikue).

Badakit jende gehienak ez diela garrantzirik ematen hone-lako kontuei, baina bost minutu libre duenak pentsa dezala zelako aldea dagoen *Arimazuri* eta *Arimazubiren* artean. Itxuraz kontsonante simple baten aldaketa nîmiñoa dago, baina esanguran sekulakoa. Ala ez? Antzera litzateke *Ferrerías* kalearen izena gustatu ez eta *Serrerrías* bihurtuko bagenu (edo *Perrerrías*, gurago baduzu). (Bide batez,

nik ez nuke inolako *ningunorik Ferrerías* hori *Arozka*le bihurtzeko, antzina horrela ere bazen eta. Pentsa, Gasteizen *Cuchilleriari Aiztogile* kalea izena eman diogu (ofizialki onartua, gainera), eta oraindik arrotza bada ere, poliki-poliki sartzen ari da).

Orduan, arimetara itzuliz, zelan? ARIMAZUBI, duda barik.

Txipi Ormaetxea

AKANPADA DELA ETA

Joan den asteko *Arrasate Presse*ko 507. alean eta *Iker Ezpele*ak sinatutako idatzian, besteak beste, Ikastolari salaketa egiten zitzaion udan egin zen akanpada zela eta.

Horren aurrean, zera argitu nahi dugu:

- Ikastolarekin harremanetan jarritako akanpadako ordezkaria, ez zen izan idatzia sinatzen duena. Baliteke, beraz, azken horrek informazio zuzena ez izatea.

- Ikastolak ez zion inolako momentutan baietzik eman akanpadako antolatzaileen aldetik gurekin harremanetan jarri zen ordezkariari. Hasieratik jakinarazi zitzaion euren eskaera Zuzendaritza Kontseiluan aztertu beharko zela.

- Hala ere, Ikastolako ordezkariak adierazi zion Gazteluondoko kantxa uztea zaila izango zela; alde batetik, uztailean zehar margotu egin behar zelako eta, bestetik, azkenaldian zenbait ekintze-

tarako utzi ondoren, apurketak eta hondaketak gertatu izan direlako.

- Zuzendaritza Kontseiluak uztailean gaia aztertu eta ezetza eman zion eskakizunari, aipatutako arazoak kontuan hartuta.

- Orain arte, Ikastolak eskatu duten guztiei utzi die instalakuntza hori, doan, baina erabili dutenen aldetik ez da beti egon beharrezkoa den erantzukizuna eta begirunea, eta, ondorioz, hainbat kalte Ikastolak berak jasan, konpondu eta ordaindu behar izan ditu. Hau dela eta, zein kasutan utzi behar den aztertzeko dago.

- Idatzian, herriarekiko Ikastolaren jarrera zalantzan jartzen da. Baina, ez da aipatzen, adibidez, udaletxearen eskaeraz, akanpadan erabilitako argindarra Ikastolako instalakuntzatik hartu zela, kostua gure kontu izanik, noski (gogoratu akanpadako hainbat egunetan kontzertuak izan direla).

- Beraz, garbiak izan gaitzen gertakizunak diren bezala azalduz: "Ikastolak ez du bere hitza jan, aurrez eman ez duelako".

Ikastolako Zuzendaritza Kontseilua

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 15

- Korkuera, Musakola

Larunbata, 16

- Morales, San Andres

Igandea, 17

- Azkoaga, Ferrerías

Astelehena, 18

- Azkoaga, Iturriotz

Asteartea, 19

- Korkuera, Musakola

Asteazkena, 20

- Irizar, Erguin

Osteguna, 21

- Amezua, Santa Marina

Sile Sile

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Zer iruditzen zaizu herri autobusaren salneurria?

Herri autobuseko txartelak 100 pezetan salduko dira



Tomasa Espejo
(70 urte)
Erretiratua

Nire herrian 125 pezeta kostatzen da; beraz, hemengo oso prezio egokia iruditzen zait.




Rosa Espejo
(39 urte)
Langilea

Ez dakit... akaso apur bat garestia, ez?



Miguel Jimenez
(70 urte)
Erretiratua

Oinez ibiltzea gustatzen zait eta gutxi erabiliko dut, baina prezio egokia dela uste dut.




Lorenzo Posadas
(71 urte)
Erretiratua

Ez zait garestia iruditzen; prezio ona dela deritzot.



Maria Luisa Agirre
(64 urte)
Erretiratua

Bidezkoa iruditzen zait.




Joseba Imanol Talledo
(50 urte)
Langilea

Arrasaten, hainbeste alda-pa egonda, behar-beharrezkoa zen urbanoa, eta 100 pezeta prezio ona da, egingo duen zerbitzuarentzat.



Maria Luisa Alonso
(68 urte)
Erretiratua

Nik gaur bertan erabili izango nukeen, anbulatoriora joateko... eta prezioarekin konforme nago.



Iban Lopez de Munain
(35 urte)
Langilea

Ez dakit zenbat balio behar-ko lukeen, baina prezio egokia dela deritzot.

... **LILURIA** ...
OIHALAK
Denboraz prestatu
Maritxurako jantzia
Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 72

BASATI
TABERNA
DINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TLF. 943 711768

USTEAK USTE

Lizarra, zer?

Lizarra-Garaziko akordioa sinatu zela bi urte bete ziren martitzenean. Eta komunikabide guztiek jaso zuten, EH izan zela urteurren hori ospatu zuen sinatzaile bakarra. Beste sinatzaileen esanetan, hitzarmena geldidagoela eta, hobe zen ez ospatzea. Elkarrizketa omen da Lizarra-Garaziko hitzarmenaren oinarria eta hain justu hori da gure alderdi politikoen artean ez dagoena. Jakin badakigu ETAK behin-behineko su-etena bertan behera lagatzea erabaki zuenean, Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu zuten askok ordura arte lortutako abertzaleen arteko batasunari mugak jartzea erabaki zutela. Esplizituki adierazi ez arren, hori izan zen arrazoia eta ordutik horrela gaude. Eta hori gutxi balitz, EHK parlamentura ez joatea erabaki omen du eta lbarretxe lehendakariak, berriz, ezker abertzalea ordezkatzen duen alderdi horrekin elkarrizketa ez duela izango esan du.

Non gelditu da, bada, elkarrizketaren oinarri hori?

Marijo Deogracias



Etxebizitzaren arazoa

* Sagra Lopez

Batzuendako zorioneko egoera daukagu. Beste batzuendako zorigaitzoren herrian bizi gara. Giza bazterketaren aurkako "Denontzat" plataformaren kide garenek oso sakon izan ez arren, gai honen gainean, Arrasateko egoera azaleratzeko, kanpo ikerketa egin dugu. Gaur egun, etxebizitzaren prezioa Arrasaten 25 eta 40 milioi pezeta artean dago; eta alokairuak 80.000 eta 100.000 pezeta artean. Egindako hurbilketan, Arrasateko biztanleen bi heren osatzen duten gehiengo zabal batean, erdi mailako familiaren errenta hileroko 200.000 pezeta inguruan dagoela pentsatzen dugu. Alta, hamar urtetan errenta osoa bideratu beharko luke familia horrek etxebizitza erosteko. Hasierako kapitala eduki ez arren, banketxeari mailegu bat eskatu behar dio, eta horrela, bere baliabide osoak 17 urtetan, etxebizitza erosteko inbertitu behar ditu.

Hau horrela izanik (eta horrela ez bada oso antzera-

koa dela iruditzen zaigu), Arrasateko gehiengo horretako herri mailako familia batek zorretan sartzeko duen ahalmen hori baino askoz txikiagoa dela ikusten dugu. Tes-tuinguru horretan, "Denontzat" plataformako kideek beste bi errealitate antzeman ditugu. Arrasateko sektore handi bat etxebizitzaren merkatuetatik at dagoela lehena, eta bere ekonomiak babes ofizialeko etxeak erosteko gai ez dela. Bigarren errealitatea, Arrasateko gazteei dagokie: neurri handi batean ezin dute espazio propioa gauzatu eta bere aita-amekin bizitzeko behartuta daude. Kontuan hartuz gero, behin-behineko kontra-

**“
Etxebizitzen
prezioa Arrasaten
25 eta 40 milioi pezeta
artean dago
”**

tuak eta langabezia bereziki gazte sektore batean gauzatzen dela, Arrasateko gazte sektore handi batek ezin du bizi egitasmo propioa normalki bideratu.

Errealitate horretan sus-traitzen ditugu gure eskakizunak. Cerrajerako solairuan Arrasateko Udalak 400-500 etxebizitza publiko eraikitze-ko hartutako erabakia pozgarria eta txalogarria da, baina ez da nahikoa; Arrasaten etxebizitzaren arazoa pilatu egin da. Ekainaren 21ean "Denontzat" plataformak emandako prentsaurrekoan, Arrasaten, etxebizitza politikarako muga-garri bakarra merkatuaren eskaria izan dela esan genuen. Eta ondorioz, Arrasate, lan errentak kapital errentak bihurtzeko oso leku egokia dela kontsideratuz, hausnarketa eta etxebizitza politikarako ildo berriak proposatu genituen. Eta nonbaitetik hasteko, udalari beste gauzen artean zera proposatzen diogu: orain egiten dagoen hirigintza Plan Orokorrean herritarren parte hartzea bermatzea, hori premiazkoa delarik; eta benetako errealitatea azaleratzeko, etxebizitzaren inguruko inkestak udalak egitea; Arrasateko gazteak etxebizitzara hel-
tzeko plan berezia garatzea. Plan berezi horrek, gure iritiz, lehentasuna izan beharko luke gaur egungo etxebizitzaren errealitatean.

* Bazterketa Sozialaren Aurkako Plataforma "Denontzat Taldea"

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**
**Plastiko eta burdinazko hodiak
 beirina eta kristalak
 osagaiak**
 Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**ARRASATE
 HOTELA**

 Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
 ARRASATE

hildakoak

- Fidel Andia Ezpeleta, irailaren 7an. 77 urte.
- Ignacio Mayoz Iruetagoiena, irailaren 12an. 74 urte.

jaiotzak

- Unai Agirre Larrañaga, irailaren 8an.

ezkontzak

- Antonio Vitoria eta Maria Manuela Aparicio, irailaren 9an,

mezak

San Joan parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta larunbata
19:00 (gaztelaniaz)
Igandea
12:00 (gaztelaniaz)

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 15

Goizaldean, behe lainoa izango dugu eta egunean zehar lainoak izango dira nagusi. Tenperaturak behera egingo du.



LARUNBATA 16

Euri xehe arriskua izango dugu. Hai-zeak iparraldetik ahul joko du.



IGANDEA 17

Lainoak gutxitzen joango dira eta kostaldeko haizeak joko du.

eskelak

Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna: asteazken eguerdira arte

Tel.: 943 71 23 91

ESKER ONA




Mikel Garai Uriarte

2000.eko abuztuaren 15ean hil zen

Bere familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hileta elizkizunetara etorri izana eta bere bizitzan zehar lagun izan diren guztiak.

Urkuluko uraren maila %64,8




GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

15

ostirala

■ ZINEMA

Donde está el dinero, 19:30 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik gorakoentzat.

■ JAM ARETOA

Shelter, *Ensign* eta *Niltal* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan. Sarre-rak 1.800pezetan, 1.500 aldez aurretik erosita. 22:00.

16

larunbata

■ ZINEMA

La Tormenta Perfecta, 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik gorakoentzat.

■ JAM ETA GO-JAM

Dance jaialdia izango da Jam aretoan. Bost DJk hartuko dute parte. 00:00. Bestalde, Go-Jam aretoan *Cosmic Psychos* eta *Mobile Homos* taldeen kontzertua izango da. 21:00.

17

igandea

■ ZINEMA

La Tormenta Perfecta, 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik gorakoentzat.

19

asteartea

■ ZINEMA

La Tormenta Perfecta, 19:00 - 21:30, Alai zineman. Ikuslearen eguna.

18

astelehena

■ ZINEMA

La Tormenta Perfecta, 19:00 - 21:30, Alai zineman. 13 urtetik gorakoentzat.

20

asteazkena

■ ZINEMA

Harremanek azken hiru urtetan Colombian egin duen proiektuaren arduraduna, Sebastian Uribecheberria etorri dela eta, han egindako lanaz arituko da, udaletxeko osoko bilkuran, 19:00etan.

 **Zaldibarzaleei oharra**

Astelehenean eta asteartean (hilaren 18 eta 19an) Zaldibarko areto futboleko ibili diren taldekideek, aurrez jarritako fidantzak jaso ahal izango dituzte, 19:00etatik 20:00etara, Arrano elkartearen.

Jesusi Etxebarria
MUSIKA ESKOLA

2000-2001 IKASTURTEKO
MATRIKULA EPEA ZABALIK: 7tik 29ra

- SOLFEOA, ABESBATZA, PIANO, AKORDEOIA, FLAUTA, TXISTUA ETA GITARRA (azken modalitate guztietan - klasikoa, rock-a, blues-a, modernoa, etab), solfeo edo zifraz.
- 5 urtetik aurrerako umeentzat eta helduentzat.
- **Izena emateko:** 17:00-21:00, akademian astelohenetik ostiralera edo telefonoz 22:00etatik aurrera

Iturriotz 32, etxabea. Tel.: 943 79 17 67

 **CIM**
HIZKUNTZAK

CAMBRIDGEko azterketak
(FCE, CAE, CPE, BEC)

2000ko abenduko deialdia
Matrikulatzeko epea: Irailaren 11tik 25era
Informazio gehiago gure bulegoetan

Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 55
Olakua, 14 • OÑATI • Tel.: 943 71 60 00

Jardunaldiak:
Monterron, 18:30

ASTELEHENA, 18

Estresa eta lasaiketa, El poder de la Autoestima, Jose Luis Armendia. Yoga: Prevención y Terapia, Antonia Nogueiras.

MARTITZENA, 19

Ukimenaren indarra, Masaje Psikosentsitiboa, Jose Luis Armendia. Cuerpo y Consciencia, Jose Luis Abuin.

EGUAZTENA, 20

Psikoterapiaren Bilakaera, Jose Luis Armendia. Relación del Yoga y la Psicoterapia, Encarna Mendez.

EGUENA, 21

Tankra Culto de lo Femenino, Los Pilares de la Autoestima, Jose Luis Armendia.

EGUBAKOITZA, 22

Integración psico-corporal, Técnicas de Psicoterapia, Maribel Gomez.

■ **ORDUTEGIAK**
Udaletxeak ohiko ordutegia izango du irailaren 18tik aurrera: 10-13 eta 15:30-18:30. Gazte eta Sexologia Bulegoek badute ohiko ordutegia dagoeneko: Gazte Bulegoa, 11:00-13:00 eta 17:00-20:00; Sexologia Bulegoa, astelehenetan 17:00-20:00 eta eguenetan 15:00-18:00.

■ **KATEKESIA**
Katekesiaren lehen ikasturtea hasi nahi dutenek matrikula egin behar dute. Bete beharreko paperak zapatu eta domeka honetan izango dituzte parroketan eta sakristietan. Irailaren 20 edo 21ean eman behar dira, San Frantzisko edo San Joango parroketan, 17:30-19:00.

■ **IGERILEKUA**
Musakolako Kiroldelago igerileku klimatizatuak irailaren 18an zabalduko dira. Igerilekuon neguko ordutegia honakoa da: astelehenetik egubakoitzera, 8:00-21:00; zapatuetan, 9:00-13:30 eta 16:00-20:00; domeka eta jaiegunetan, 9:00-13:30. Kiroldelagien ordutegia, honakoa: 9:00-21:30.

■ **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOA**
Irailaren 18an hasten da gripearen aurkako txertaketa kanpaina. Anbulatoriora jo dezakezue, 9:00-15:00, edo auzoz auzoko txertaketa-ra joan: 25ean San Andresen, 26an Abaroan, 27an Uribarrin, 28an Santamainan eta 29an Musakolan, auzo alkateztetan, 12:00-13:00.

■ **EHIZA TXAPELKETA**
Leintze Ehiza eta Arrantza Elkarteak txapelketa bat antolatu du irailaren 23rako. Arabako Santa Cruz del Pierron izango da, eta txakurrarekin egin beharko da ehiza. Izen ematea: irailaren 20a arte, eguaztenetan, 19:00-20:00, euren egoitzan.

■ **HOLIDAYS IN THE SUN BERGARAN**
Holidays in the Sun jaialdia izango da Bergarako Jamen, irailaren 22an hasi eta 24a arte. 30 talde inguruk hartuko dute parte. Sarrerak Jamen eta Discopolisen daude salgai, 17.500 pezetan.

■ **TOKI-EDER**
Irailaren 30a arte egongo da San Andreseko Toki-Eder kafetegian Angel Frias beasaindarren margoak ikusteko aukera. Bañez Dokorea, 11.

"1.000 baietz"
Astelehenetik aurrera

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 24 58

Zeri ari zara itxaroten?

EGIN ZURE MATRIKULA



Garibai, 6 - B ARRASATE Tel.: 943 - 77 11 06

ESKOLA PARTIKULARRAK • OHO • EII • BBB • LH • BT • UBI	MEKANOGRAFIA • Ordenadore bidez
INGENIARITZA • Matematika I • Kalkulua II • Fisika I eta II • Termodinamika • Informatika I	INFORMATIKA
GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT	OFIMATIKA • Testu prozesatzailea • Datu Baseak • Kalkulu orriak
HIZKUNTZA IKASTAROA ATZERRIAN (King's College)	PROGRAMAZIOA • Qbasic • Turbo Pascal • Turbo C • Dbase • Cobol...
	INTERNET • Nabigatzea • Web orriak • Posta elektronikoa

astea bi hitzetan

■ Zarata azterketa

Arrasateko kaleetan dagoen zarata, larregikoa den edo ez aztertu da. Udaleko Ingurumen Sailak bideratuta, San Viator Ikastetxeko bi ikasle arduratu dira gidaritzaz: Jone Ezkurra eta Miren Urkia. Udalean aurkeztu berri duten txostenaren arabera, herriko kaleetan dagoen zarak gainditu egiten du udal araudiak ezartzen duen muga. Hala ere, ez da kezagarria oso kopuru gutxian gainditzeko baitu.

Zarataren azterketa egiteko, lau biribil aztertu dira

bi hilabetez: Takolokoa, Udalakoa, San Frantzisko-koa eta Maalakoa. Biribil bakoitzean hiru puntu zehaztu eta bakoitzean hamabost bat minutuz grabatu dute zarata. Era berean, aurreneko hilabetean goizez grabatu da zarata eta bigarrenean, arratsaldez.

■ Herri lanak

Herrian egiten ari diren lan ugarien barruan, bi egunez itxita egon da Zerkaosteta kalea. Azpiegitura lanak bukatu dituzte aste honetan eta asteazkenetik aurrera

berriro ere zabalik dago. Asfaltatze lanak egin eta ondoren Seber Altube eta Arbolapeta plazetan azpiegiturak sartzeko hasiko dira.

■ Nekazaritza aztergai

Mondragoen gero eta gutxiago dira baserriak bizi diren nekazariak. Hori ikusita, Arrasateko Udalak herriko baserriarren egoera aztertzeko lan bat egingo du. Tomas Madinabeitia atxabaltarra da azterketaren arduraduna eta abendurako aurkeztuko ditu emaitzak.

■ Lau-Kalen, hobeto

Merkatu txikia Lau-Kale plazara aldatuzen irailaren 1ean, eta aurrerantzean beti plaza horretan egingo da, eta ez San Andres eta San Juanen, txandaka. Auzo hauetako bizilagunak kexu ziren, postuek eta kamioiek leku gehiegi hartzen zutelako. Gainera, lekua astero aldatzen zenez, jendea nahastu egiten zen. Neurri honekin, gainera, arrasatear guztiei hurbil geratzen zaien leku batean kokatu nahi izan du udalak merkatu txikia.



“Nire ustez, norbera libre da egin nahi duena eta norekin egon nahi duen aukeratzeko. Egia da guztiok identifikatzen garela kronika larrosan agertzen diren pertsonaiekin, guztiok garelako haragidunak eta hezurduinak, baina ni gehiago arduratzen naiz nire lagunengan lan arazoetaz, euren arazo sentimentaletaz eta abar, besteen maitasun istorioetaz baino. TVEn komunikatzeraz eta munduko maitasun guztiaz albisteak ematera mugatzen naiz. (...) Lotsa ematen dit gai pribatuak komentatzea, batez ere hirugarren pertsonak tartean daudenean eta eurretaz jardun behar duzunean. Beti saiatu naiz errespetua izaten bai nire familiarekin bai eta izan ditudan bikoteekin, argazki batean islatuak ikus daitezkeen beldur naizelako”.

ANNE IGARTIBURU

El Semanal
(2000.9.1)



- Garajeko atekak
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko agente tresnak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak



JUBAR®
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 •
Faxa: 943 79 08 17 • 110 Postakutxa • ARRASATE

Super Net Kontua


Euskadiko Kutxa Net

Eskua luzatzen dizugu bankan interneten bidez sar zaitezzen.

Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletatik eskua luzatzen dizugu erraztasun osoa izan dezazun bankan Interneten bidez sartzeko. Laguntza tekniko ere emango dizugu 902 333 353 Telefono Zerbitzuaren bidez, inoiz ez zaitezzen trabatua geratu. Eta garrantzitsuena. Super Net Kontua jartzen dizugu eskura, erabilgarritasun osoa duena inolako komisiorik gabe, zure aurrezkien askatasun osoz nabiga dezazun errentagarritasun altuan.

Orain Super Net kontuarekin aukera berriak irekitzen zaizkizu:

- Errentagarritasun handiagoa kostu txikiagoekin.
- Azkartasun eta erosotasun handiagoa.
- Baloreen salerosketa, gordailuak, inbertsioak eta abar momentuan egiteko. Inbertsiogile handien abiadura berberaz mugi zaitezzen.



Ondorengo ordainketa lehen pezetatik hasita:

0tik 199.999 pta.ra, %0,10eko UTB (%0,10eko nominala)
200.000tik 999.999 pta.ra, %2ko UTB (%1,982ko nominala)
1.000.000etik 2.999.999 pta.ra, %3ko UTB (%2,960ko nominala)
3.000.000tik 4.999.999 pta.ra, %4ko UTB (%3,928ko nominala)
5.000.000tik 10.000.000 pta.ra, %5eko UTB (%4,889ko nominala)

ezaugarri nagusiak

- **Ez du helbideratzerik onartzen**
- **Gehienez 10.000.000 pta.ko zenbatekoa**


- Erabateko erabilgarritasuna
- Mantentze-komisiorik gabe
- Interesak egunero kalkulatuta
- Interesak hilero ordainduta
- Kontua sukurtsaletan irekita



Informazio gehiagorako, deitu 901 333 444 telefonora edo bisita ezazu gure Interneteko orri berezia: www.cajalaboral.es/supernet

Kontu honek pertsona fisikoak bakarrik onartzen ditu eta bezero bakoitzeko kontu bakarra ireki ahal izango da.

901 333 444
www.cajalaboral.es


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin
elkarlanean

Udal Euskaltegiak eta ARKO



Aurten ere ARKOk udal euskaltegien komunikazio kanpaina eramango du eta horixe bera aurkeztu zuen joan den ostiralean, Eudelek Bilbon duen egoitzan. Aurkezpenean Andoni Aizpuru kazetaria, Jokin Azkue (HABEko zuzendari orokorra), Jon Iñaki Zarraga (Sondikako alkatea) eta udal euskaltegietak 3 zuzendari izan ziren.

Laugarren urtez egiten du lan hau ARKOk eta hirugarren aldia da Bizkaiko udal euskaltegiek ere parte hartzen dutela.

Komunikazio kanpainaren barruan, medioen plangintzaz (prentsa, telebista, irrata, zinea eta inprimakiak), sormen lanaz (leloak, disei-

nua...) eta kanpo harremanetaz arduratuko da ARKO.

“Udal Euskaltegiak, Jokaldirik onena-La mejor jugada” leloa da ostiralean bertan aurkeztu zuten kanpainaren izena. Irailean zehar telebistan, zinean, irratan eta prentsan ikusi eta entzun ahal izango dira udal euskaltegien ARKOk publizitate sailak landutako iragarkiak.

Udal euskaltegietan iaz 10.742 ikasle aritu ziren eta aurten, matrikulazio kopuruak gora egin du; iaz baino %27,17 matrikulazio gehiago egin dira. Beste euskaltegietan izena emandakoekin alderatuta, ikasleen %27,6k Udal Euskaltegia aukeratu dute aurten.

Gripearearen txertoa

Gripearearen aurkako txerteketa datorren astelehenean, irailaren 18an, hasiko da eta urriaren bukaera arte iraungo du. Bi taldek hartu ahal izango dute gripearearen kontrako txertoa: batetik, 65 urtetik gorakoek eta, bestetik, 65 urtetik beherakoak izanda, gaixotasun kronikoak dituztenek: diabetesa, bihotzeko gaixotasunak, birika edo giltzurruneko gaixotasunak eta

loditasuna, esaterako.

Txertoa anbulatorioan edo norberaren auzoan hartu ahal izango da. Etxetik irteteko zailtasuna duten gaixoentzat, berriz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko da.

65 urtetik gorakoek ez dute inolako paperik aurkeztu behar txertoa hartzeko; eta beste guztiek nahikoa dute medikuak edo erizainak emandako bolantearekin.

Gerizpe gutxiago Maisu Aranon



Hasi dira Maisu Arano plazako zuhaitzak botatzen, egin beharreko lanak egiteko. Azpiegiturak sartuko dituzte, datorren urriaren erdialde ingurura arte. Segidan,

zolaketa lanekin hasiko dira eta ondoren itxuratuko dute berritua plaza. Eserleku eta zuhaitz berriak ipiniko dira eta baita plazara igotzeko harmaila batzuk ere.

Deba ibaia garbituko dute poliki-poliki

Deba ibaia laster ez da Gipuzkoako zikinena izango. Hasteko, Mondragoeko ur zikinak Deba ibaira joan beharrean, batu egingo dira Gipuzkoako Uren Partzuergoak jarriko duen biltzaile baten bidez. Horrez gain, bailarako ur denak garbituko dituen araztegi bat ere jarriko da Epelen.

Mondragoeko kolektorea jarriko da aurrenik. Lanak, irailaren bukaera aldera hasiko dira. 1'5 metroko hodi bat eraikiko da eta Deba eta Aramaio ibaietara botatzen diren ur zikinak batuko ditu. 16

hilabeteko iraupena izango dute lanek; beraz, 2002. urtearen hasieran amaituko dira. Inbertsioa, berriz, 1.600 milioi pezetakoa izango da.

Halaxe adierazi digu Iñigo Elosegik, Partzuergoko


zuzendariak.

Biltzaile edo hodi hori Epelerraino eramango da, Roneo ingurura. Bertan, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñatiko ur zikinak ere batuko dira. Izan ere, Epelen ur zikin horiek

garbitzeko araztegi bat eraikitzeko asmoa dago.

Espainiako Gobernuak eraikiko du araztegi hori. Oraingoz dakiguna zera da, Epelen ipiniko dela eta 4.000 milioi pezetako dela.

Hamar bat hilabeteren buruan egingo da behin-behineko proiektua, eta jaso beharreko alegazioak eta aldaketak egin ondoren, 2002. urteko hasiera inguruan adjudikatuko dira lanak. Beraz, lan hauek kolektorearenak baino dezente atzerago egingo dira.




LHT ez da Debagoiengan geratuko

Eusko Jaurlaritzak erabakita-koaren arabera, Lastertasun Handiko Trenak ez du geralekurik izango Debagoiengan. Ezkio-Itsason kokatuko da geltokirik gertuena.

Halaxe jakinarazi zien Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Antzuola eta Aramaioko alkateei pasa den asteazkenean.

Horrez gain, jakinarazi zenez, Mankomunitateak aurkeztutako beste alegazio gehienak baztertu ditu Eusko Jaurlaritzak: Lastertasun Handiko Trena Epeleko bailaratik zehar pasatzea eta inguruko hainbat gune babestea (Lezetxiki, Eskoriatzako Mazmela, Zarimutz eta Marin elizaurreak eta Antzuolako Irimo-Behekoa eta Basal-



Asteazkenean jakinarazi zen erabakia Mankomunitatean.

de auzoak).

Eusko Jaurlaritzak kon-tuan izan duen alegazio bakarra, Lezetxikiko gune arkeologikoa babestea izan da. Gasteizko Gobernuak trenbidea gune horretatik urruntzea erabaki du, 400 metro ekialderantz.

Arrasateko alkatearen esanetan, oraindik goiz da balo-

razioak egiteko ez baitute jakinarazpen formalik jaso. Hala ere, asteazkeneko bileran adierazitakoak "esperantza gutxi uzten die bailarako udalek egindako eskaerei. Era berean, nire ustez, proiektu berari buruzko eztabaida da interesgarriena, baina hori oraindik ez da egin".

Udal gobernua, tinko

Horixe da, herriko udal gobernua osatzen duten alderdiek idatzi baten bidez adierazi dutena. Pasa den uztailaren 28an EAJk udal gobernua uzteko hartutako erabakia dela eta, egin dira adierazpenok. Lau puntutan, zera azaldu dute, Euskal Herritarrok, Eusko Alkartasuna eta Ezker Batua alderdiek: batetik, udal gobernuan segituko dutela. Bestetik, EAJk hartutako erabakia berrazter dezala eskatzen dute. Aipatutako hiru alderdien ustez, "ez dio ezertan laguntzen gaur egun Euskal Herrian eta Arrasaten bizi dugun egoera konpontzeko egiten ari garen ahaleginari".


Hirugarrenik, elkarriketa, eskubide guztien errespetua eta konpromiso politikoa ikusten dute arazoan konponbiderako metodo bezala. Eta, azkenik, Lizarra-Garaziko Adierazpenean ezartzen diren printzipioak aldarrikatzen dituzte eta zailtasunak zailtasun, horixe dela jarraitu beharreko bidea uste dute oraingo udal gobernua osatzen duten hiru alderdi politikoek.

Eskolara!!!

Mondragoeko neska-mutikoei oporrak bukatu zaizkie eta itzuli dira eskolara. 3.300 ikasle pasatxo hasi dira aurten eskolan. Eskolaz eskola banatuz gero, hauek dira kopuruak: San Frantzisko Xabierren, 939 ikasle (Haur eta Lehen Hezkuntzak eta DBH);

San Viatorrek, berriz, 1.000 ikasle inguru izango ditu (Haur Hezkuntza-DBH, batxilergoa eta heziketa zikloak); Erguin Herri Eskolan, 160 bat ikasle eman dute izena (Haur eta Lehen Hezkuntza). Musakolakoan, berriz, 108 haurrek (Haur eta Lehen Hezkuntza).

San Andres Herri Eskolan 58 ikasle arituko dira (Haur eta Lehen Hezkuntza) eta La Mercedes-en, berriz, 400 ikasle inguru (Haur Hezkuntza-DBH). Bukatzeko, Arrasate-Aretxabaleta Institutuan 650 ikasle ibiliko dira (DBH, batxilergoa eta heziketa zikloak).



Maritxu Kajoi
egunerako behar duzun guztia prestatuta daukagu

SIKOL

Zatoz eta proba ezazu!!

Olarte, 31 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 32

FEDEDUN UGARI ARANTZAZUN



Bai atxabaltarrak, bai arrasatearrak ere, ehunka igo ziren erromesaldian Arantzazura, Amaren bedera-tziurrena amaitzeko. Urte Santua dela eta, sekula baino fededun gehiago igo ziren, bero itzelari aurre eginez.


HORI BAI ZORTEA!



100 URTEKO BIZITZA

Irailaren 12an, Francisca Sanchez Nuñezek 100 urte bete zituen, eta omenaldi hunkigarria egin zioten Iturbide Egoi-

tzan. Badajozen jaio zen Francisca, baina 36 urte daramatza Arrasaten. Zorionak gure partetik ere!



Ume potxolo hori Iñaki Gabilondo Errasti da. Abuztuaren 28an jaio zen, eta ongietorri jaia egin zioten. Baina,

Alaitz bezalako arrebatxo polit eta maitakorra izatea da opari onena. Begira nola zaintzen duen!



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

ERDU AEK

Euskaltegia

euskara ikastaroak

izena emateko epea: irailak 27



Maila guztiak
EGA eta
ALFABETATZEA

✓ **udalaren**
laguntzaz

✓ **beka**
sistema

æek

Bulego ordutegia:
09:00 - 13:00
18:00 - 20:00

Informazioa eta
matrikula:

ERDU AEKn
Garibai, 14, 3
943 77 03 69

Aukera paregabek

TXURI-URDINAK, EZKUTUAN

Aranburu, De Pedro, Gabilondo, Jauregi, Corino, Gurrutxaga eta Lopez Rearte Realeko jokalaria eta Sarriegi jokalaria ohia izan genituen Arrasaten, Bonba Taldiek gonbidatuta. Egun pasa bikaina egin ondoren, Basati tabernara joan eta hantxe harrapatu genituen guk, giro ederraz gozatzeko Basatiko lagunekin.



URIBARRI, GATZAGA ETA CORAZON DE ENCINA JAIETAN



Uribarri auzoan, dantza saio ikusgarria, Leintz-Gatzagan, tiratzaile ezin dotoreagoak eta Corazon de Encinakoak Landan izan ziren, guztiak ere jaietan murgilduta.

MAITANERENTZAT, MAITASUNEZ



Bere ahotsa ezagutuko dute Arrasate Irratiko entzuleek, baina orain aurrez-aurre ikusteko aukeraz dugu Maitane Muñoz, umetan eta neskatan. Irailaren 7an 16 urte bitartean ziztuen, eta bere lagunak honela zoriondu nahi dute.

Bizimoduaren beste ikuspuntu bat

ARRASATE YOGA ELKARTEA

Herrian badaude ohiturazko bilakatu diren ekintzak; tradizio luzeko taldeak, urteetan jende ugari mugiarazi izan dituztenak. Hortxe daude, esaterako, elkarte gastronomikoak, kultura elkarteak eta, jakina, baita kirol taldeak ere. Eta azken hauen artean, Arrasateko Yoga Elkarte dago. Datorren astean, hogeitau beteko ditu gure artean. Yoga, zerbait arraroa eta jendeak urrutitik ikusten zuen zerbait zenean, Jose Luis Armendiak bere irakaspenak abian jarri eta orain ezagutzen dugun elkarte sortu zuen.



“Gaur egun, dagoeneko, jendeak ez du ikuspegi bera. Ni hasi nintzenean, jendeak uste zuen sekta antzeko bat ginela, gauza arraro bat moduan, pertsona bereziek egiten zutena. Orain gero eta gehiago norberaren onurarako erabiltzen da; hala ere, oraindik jendeak erreserba apurtxo batekin hartzen du yoga eta yoga ingurartzen duen kultura”.

Horixe da Jose Luis

Armendiak dioskuna. Hala ere, eta gauzak horrela izanda ere, hogeitau urte hauetan jende ugari pasatu izan da Yoga Elkartearen lokaletatik. Gaur egun, yoga edo bestelako zerbait egiten duten sei talde daude. 65-70 bat pertsona, guztira. Gehienak emakumeak dira, dena dela erretiratuak ere ez dira gutxi. Horrez gain, gazteenek ere izan dute yoga praktikatzeko aukerarik (tokian tokiko eskolaren erabakiaren arabera, yogari

buruzko eskolak eman izan dira Mondragoen).

“Gizonezkoak, yoga baino, masajea hartzera animatu ohi dira gehiago. Kirolaren osagarri moduan erabiltzen dute masajea. Emakumeek masajea lantzen dutenean, berriz, euren afektibitatea garatzeko erabiltzen dute”.

YOGA BAINO GEHIAGO

Izan ere, yoga da elkartearen egiten den ekintzarik nagusiena, baina beste ekintza batzuk ere

aukera daitezke: masajea, gimnasia bioenergetikoa, gorpuzta eta ezagutza, arnas ariketak, estresaren aurkakoak, teknika psikoterapeutikoak... guztiak ere yogaren kultura-rekin lotutakoak.

Maiztasun txikiagorekin, berriz, beste hainbat teknika ere lantzen dira Yoga Elkartearen: meditazioa egiteko aukera du halaxe nahi duenak eta Reiki ere egiten da (esku ezarpena).

Jose Luis Armendiaren

esanetan, "gizakiaren arlo guztiak bat eginda ikusi eta lantzen ditugu. Hiru puntu hartzen ditugu kontuan: burua edo kontzientzia, gorputz fisikoa eta hunkimenak eta sentimenduak. Puntu bakoitza lantzeko tresna edo teknika desberdinak daukagu, hirurak ondo egonik lortzen baita, gure ustez, osasuntsu izatea".

ANTZINAKO PENTSAMENDUA

Pentsamendua edo gorputza zaintzeko bide hau ez da garai modernoan emaitza; ez da, ezta ere, norbaiten asmakizuna: "Lehenagoko kultura zaharrek ere horrelako ikuspuntua zeukaten: inkek, maiek egiptoarrek eta, gehienbat, ekialdeko kulturek: indiarrek, txinatarrek, japoniarrek..."

Euskarara joz gero, geure hizkuntzan ere badugu pentsamendu horren isla izan daitekeen hitz bat: osatu. Alde batetik, betetzea esan nahi du, falta dena gehitzea; bestetik, sendatzea esan nahi du. Horixe ikusten da, pertsona osoa, pertsona osasuntsua dela, pertsona integrala.

Yogari berari dagokionez, filosofia horri buruz idatzitako lehenengo azarnak duela

5.000 urtekoak dira, Indiakoak. Hasieran, meditazioa egiteko erabiltzen zen, norberaren burua hobeto ezagutzeko. Gero, garai hartako hainbat maisu, yoga, zenbait gaixotasuni aurre egiteko erabiltzen hasi ziren".

Gaur egun, berriz, denerrako erabil daiteke yoga: norbaitek kirola eginez gero, luzapen ariketak egin ditzake yogaren bitartez; kontzentrazioa handitzeko ere badu meditazioa eta antzeko teknikarik. Horrez gain, lasaitzeko ezin hobea da, batez ere estresa jende askoren buruko min den garai honetan. "Gainera, aspaldian ikusten da gero eta gehiago sendagileak jendea yoga egitea agintzen diola terapia moduan: bizkarrarekin arazoak dituztenentzat, arnasarekin arazoak dituztenak..."

Baina, sendabide izateaz gain, yoga, bizitzeko modu bat ere bada: "ez da ordu eta erdian egiten den zerbait eta kitto. Pentsamendu bat da yoga, filosofia bat, bizitzaren arazoei aurre egiteko beste modu bat. Yogak lasaitasuna du helburu eta euskarri; lasaitasun horren bitartez, bizitzaren arazoak mendera-



Neska-mutikoeek ere izan dute yoga egiteko aukera.

tzeko bide bat eskaintzen du; izan ere, pertsona bat lasaia-go dagoenean, bere ikuspuntua ere aldatu egiten da, argitu egiten dira".

GERTUAGOTIK EZAGUTZEKO

Mendeetan zehar, belaunaldiz belaunaldi transmititu eta landu den filosofia da yoga. XXI. mendean sartzear gaudenean, 20 urte bete ditu yogaren irakaspak Mondragoen. Hain

urteurren berezia ospatzeko, oraindik yoga ezagutzeko aukerarik izan ez duen jendearentzako egitaraua prestatu du Yoga Elkarteak, jendearengana gerturatzeko.



Yoga egitera joaten diren gehienak emakumeak dira.

Irailaren 18tik 22a arte jardunaldiak izango dira Monterron Jauregian, arratsaldeko 18:30etik aurrera. Saio denetarik praktikak egongo dira. Bost egun hauetan zehar, estresari aurre egiteko teknikak, masajea, psikoterapia, autoestimua eta nola ez, yoga, landuko dira. Jardunaldien gidariak Yoga Elkarteako irakasleak izango dira.

Horrez gain, zapatuan lantegi praktikoak egingo dira, bai Yoga Elkartearen lokalean, bai eta Natura Enea egoitzan. 10:00etan hasiko da goizeko saioa eta arratsaldeko 14:00etan bukatuko da. Arratsaldeko saioa, berriz, 17:00etatik aurrera izango da. Egun horretan erretiratuentzako yoga eta masajea landuko dira. Irakasle moduan, Yoga Elkarteako irakasleak eta Maribel Gomez Sanjuan psikologo gonbidatua izango dira.



IRAKASLEAK

ANTONIA NOGUEIRAS



Mondragoe-tarra izatez, hementxe ematen ditu ikastaroak eta baita Osintxun eta Antzuolan ere. 16 bat urte daroaz yoga irakasle moduan.

Jose Luisekin egin zituen yogako ikasketak, eta masaje ikastaroak ere eginak ditu. Bilbon beste alor batzuk ere jorratu izan ditu, yogan eta masajean sakonduz.

kadan Jose Luis Armendiaren yoga ikastaro batera. Ikasi eta gustatu. Orduetik hementxe bizi da eta astean birritan ematen ditu yoga eskolak erretiratuentzat. Horrez gain, Gimnasia Bioenergetikoa eta Garapen Pertsonala ere ematen ditu.

Jose Luisekin egin zuen aurreneko ikastaroa.

Mondragoen ematez gain, Aretxabaletan ere ematen du.

masajea ere.

Indian egon da bi aldiz, eta hantxe sakondu du, bereziki, yogaren irakaspenetan.

Bergaran ere ematen ditu ikastaroak udalak antolatuta; baita erretiratuei ere.

JOSE LUIS ABUIN



Oñatiarra izatez, Mondragoen bizi da. Masajea da berak ematen duen ikasgaia, bai

Jose Luisekin, bai eta kiroldegian ere. Horrekin batera, Gorputza eta Ezagutza ere ematen du. Kiromasajista, Akupuntorea eta Naturopata da.

ENCARNA MENDEZ



Bizkaitarra sortzez, Arrasatera etorri zen 80. hamar-



JOSE LUIS ARMENDIA

Mondragoe-tarra jaiotzez, berak sortu zuen Arrasateko Yoga Elkarte. Jarraipen ikastaroak ematen ditu, bai eta

Ubane Madera

YOGA ELKARTEAREN EGUTEGIA

- **Astelehen eta asteazkenetan:** Hasiera-ko Ikastaroa eta estresaren aurkakoa. Irakaslea: Antonia Nogueiras.
- **Astearte eta ostegunetan:** Jarraipen Ikastaroa. Irakaslea: Jose Luis Armendia.
- **Astearte eta ostegunetan:** Gorputza eta Ezagutza. Irakaslea: Jose Luis Abuin.
- **Astelehen eta asteazkenetan:** Yoga erretiratuentzat. Irakaslea: Encarna Mendez.
- **Asteazkenetan:** Gimnasia Bioenergetikoa. Irakaslea: Encarna Mendez.
- **Asteazkenetan:** Meditazioa Natura Enean. Nahi duenarentzat.
- **Ostiraletan:** Garapen Pertsonala. Irakaslea: Encarna Mendez.
- **Larunbat arratsaldetan:** Masaje Ikastaroa. Irakaslea: JL Armendia.
- **Hileko lehenengo astelehenean:** Reiki. Nahi duenarentzat.

ESPERIENTZIA PERTSONALAK



Julia Otadui Ezpeleta, 80 urte:

“Duela 11 bat urte inguru hasi nintzen yoga egiten, kiroldegian ematen zenetik. Nire ezagun batzuk zebiltzan yogan eta haien bitartez izan nuen horren berri. Gimnasia egiten nuen orduan eta yogara aldatu nintzen. Nire buruarekin oso ondo aurkitzen naiz. Oso gustura nago”.



Mariasun Arana, 60 urte:

“10-11 urte daramatzat yoga egiten. Jendeari entzunda hasi nintzen, ideia ona pentsatu zitzaidan eta ni neu ere hasi nintzen. Oso-oso-oso gustura nago”.



Jose Felix Jimenez, 33 urte:

“4 urte daramatzat Mondragoen yoga egiten, dena dela, lehenago ere emanda nuen urtebete. Kuriositatez hasi nintzen, eta baita nire berezko urduritasuna lasaitzeko ere. Oso ondo nabil hemen, primeran!!!”.

JUAN JOSE ARRIETA (EUSKADIKO KUTXAKO ZUZENDARIA)

“Lanpostu berriak behin

Deustuan ikasi zuen ekonomia plaentziar honek eta Arrasaten lan egiten duen arren, Donostian bizi da. Hala ere, astero Soroluzen gelditzen da gurasoak bisitatzen. Begi urdinak ditu eta aurpegi zuria. Eskuak mugitzen ditu azalpenak ematerakoan eta hizketan baxu egiten du, lasai, urduri jarri barik. Izan ere, bere lanean urduritasuna ez da komeni. 21 urte darmatza Euskadiko Kutxan lanean eta azkenengo 10 urteak zuzendari lanetan egin ditu. Orain, 45 urte ditu.

— Horrenbeste urtean, pozik jarraitzen duzu Euskadiko Kutxan?

— Aldaketak asko izan dira. Hazkundeak gora egin du, bezeroen beharrak aldatu dira eta baita Euskadiko Kutxaren eremu geografikoa ere. Kooperatibekiko harremanetan ere egon dira aldaketak; 90-91 arte, Lankide Aurrezki zen kooperatiba multzoa batzen zuena; MCC sortu ahala, horra

pasa ziren egin behar batzuk. Kooperatibaren baloreei ere eusten zaie; beraz, eta ditugun akatsak zuzendu beharra izan arren, pozik nago.

— Kooperatibista guztien kutxa zuzentzeak ez dizu beldurrik ematen?

— Beldurra ez, baina erantzukizun handia da. Egin beharra zuhurtasunaz eta harretaz egiten dut, nire aurrekoen proiektuari eusteko eta jendeak utzitako aurrezkiei erantzuteko.

— Zein da gure egoera ekonomikoa?

— Oso ona. Enpresak ondo dabilta bai kooperatibaren barruan zein kanpoan ere; enpleguak sortzen dira... balaran ezin daiteke esan langabezia dagoenik, agian “parotecnico” bai, baina gutxieneko mailan dago langabezia. Akats bat: lanpostu berriak enplegu ez egonkorrek direla, hau da, behin-behineko enpleguak direla eta pentsa daiteke, sor-

tu ahala galdu daitezkeela.

— Diru asko gastatzen dugu, ala aurrezten finak gara?

— Pentsa daiteke zikloa ona denean gehiago aurrezten dela, baina diru gutxi dagoenean, jendea kopetilun bihurtzen da eta gehiago aurrezten du, eta alderantziz, langabezia gutxitzen denean kontsumorako joera nabarmentzen da. Debagoienean errenta nahiko altua da eta kontsumoa eragiten du, baina zuhurtasun handiz jokatzeko da eta aurrezki tasa altua da.

— Euroaren aurrean prest egongo gara?

— 1997an egokitzapena egiteko lantalde bat sortu genuen; salerosketak hainbat merkatutan eurotan egiten ditugu. Bezero batzuek ere eurotan ireki dituzte kontuak eta maileguak eurotan eskatu dituzte, baina ez dira asko izan. Benetako erronka

2002an etorriko da. Ustedut ez garelako kontratzen datorkigun aldaketa sakonaz denbora gutxian, baina mentalitatea aldatzea izango da zailena. Informazio kanpainak

“Diru gutxi dagoenean, jendea kopetilun bihurtzen da eta gehiago aurrezten du”



an behinekoak dira”

gehitzen joan beharko gara.

— **Banku moduan tamaina egokia duzue ala kutxaren batekin elkartzeko aukera aztertu duzue?**

— Merkatua kontuan izanik, daukagun merkatu kuota-ekin eta hori errentagarritasunarekin lotuz gero, gure neurria egokia da. Gure eredu propioa da; merkatu berrietara gure ereduarekin joaten gara. Horrek ez du esan nahi beste aukera batzuk aztertzen ez ditugunik, baina ez da lehentasuna.

— **Inbertsio garrantzitsu**

bat egin behar izanez gero, zertan inbertituko zenuke?

— Inbertsio seguru bat egiteko, epeetako gordailuen igotzerak nahiko egokiak dira. Errentagarritasun fiskala ere egokia dute pensio planek, adibidez. Dena dela, burtsan inbertitzea arriskutsua da eta ez da komeni soldata batekin bizi bazara, diru guztia burtsan ipintzea; hobe da, inbertsioak banatzea.

— **Urtebetean bikolztu egin da Euriborra; goranzko joerari eutsiko dio?**

— Interes tasak pixka bat igotzeko bidea izango du.

Abuztuaren 31n, Europako Bankuak igo egin zuen interes tasa %4,5 eta urtea amaitu aurretik, beste igoeraren bat izango du. Inflazioak gora egiten badu, eta gasolinaren prezioak, adibidez ez du batere lagunduko tasaren kontrolean, igo egingo da, baina herri bakoitzaren inflazio tasa kontuan izan beharko da.

— **Azken urteotan ekonomia hobekuntza igarri dugu. Orain urte txarrak eza gutzea tokatuko zaigu?**

— Azkenengo 8 urteetan ekonomia gora egin du eta

egia da zikloa oso luzea izaten ari dela, baina adituek ez dute aldaketarik sumatzen. Inflazioaren kontrola litzateke elementurik kezagarriena.

— **Bezeroekin euskaraz aritzeko lanik egin duzue?**

— Euskadiko Kutxan, Gipuzkoan, langileen %90ak euskaraz daki, baina lanerako tresna bezala ez du erabiltzen. Zortzi urterako plangintza zabal bat egin dugu eta bertan euskaldun zaharrek egunero harreramanetan euskara erabili dezaten bultzatzeko balioko du. ■

<http://www.cim-idiomas.com>

Informa zaitetz orain!

Hizkuntzak denontzat

haur, gazte eta helduentzat

- Hizkuntza eta maila guztiak
- Ordutegi malguak
- Mediateka zure esku dohainik
- Multimedia sistemak

MATRIKULA EPEA ZABALIK

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Avda. de Álava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 20 55 Fax: 943 71 21 81
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com

Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 60 00 Fax: 943 71 80 51
E-mail: onati@cim-idiomas.com

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 15 01 55 Fax: 945 15 01 56
E-mail: gasteizbaiby@cim-idiomas.com

Zubieta, 26 - 20007 SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA)
Tel.: 943 43 31 02 Fax: 943 43 37 36
E-mail: donostia@baiby.com

bai&by

IRABAZLEEK UGARAN JATETXEAN AFARI EDERRA

Irabazle bakoitzak bina lagunentzat afaria eskuratu du, **UGARAN** jatetxean.

On egin eta eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!



Gutun ederrena **Nahikari Ganboa** eta bere lagunek bidali ziguten. Sekulako artisau lana egin zuten gainera.

“Hitcochen islada Essaouiran”

Horixe da **Jokin Aia**stui Altunak Marokotik bidali zigun argazkiaren izena.



Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, PVC, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Nagusiekin bizitzea, ikasleentzat irtenbidea

Eskola Politeknikoak irailaren 25ean irekiko ditu bere ateak. Orduan, hango gelak eta pasabideak ikaslez beteko dira... eta baita Eskolako Biteri Ikastetxe Nagusiarenak ere. Horixe baita aurtengo arazoa: leku falta.

Bailara kanpotik Eskola Politeknikora datozenei bizileku bat eman, horra hor urteroko kokka. Gehien lehenengo aukera Biteri Ikastetxe Nagusian bizitzea izaten da. Aurten, inoiz baino larriagoa izango da arazoa: aurreko urteetan baino lagun gehiago matriculatu da Eskolan, baina Biteri Ikastetxeko 280 oheak emanda daude. 100 lagunetik gora itxoite zerrendan daude, ikasleren batek lekuari uko egingo dion itxaropenarekin.

BERRIKUNTZA

Arazo horri irtenbidea ematen saiatzen dira urtero Biteriko monitoreak. Gela eske joaten zaizkien lagunei, hainbat alternatiba eskaintzen dizkiete. Aurten, berrikuntza bat dago. Jon Gabarainek, Biteriko monitore-etako batek, azaldu digu zertan datzan: "Bakarrik bizi



Arrasaten bizilekua aurkitzeko zailtasunak izaten dituzte ikasleek.

den 60 urtetik gorako pertsona batekin bizitzeko aukera dute aurten ikasleek. Nagusiei lagun egitea da asmoa. Horren truke, doaneko ostalua izango dute".

ORDAINSARIA

Baina, ez hori bakarrik. Jakina da familia askorentzat seme-alabek kanpoan ikasteak dakarrena: ikasketak ez ezik, etxebizitza ere ordaindu beharra. Alternatiba honek neurri batean arindu dezake arazoa: "Eurekin egoteaz gain, eguneroko

gauzakin laguntzen badiete nagusiei, hau da, erosketak egin, nonbaitera lagundu... 25.000 pezetako ordainsaria jasoko dute hilerot", diosku Jonek. Hauxe irtenbide majoa izan daiteke ordaingiriak pilatzen zaizkien ikasleentzat.

Alternatiba hau Foru Aldundiko Zerbitzu Sozialen sailak bultzatua dago, eta horrekin tratuan lortu zuten Biteriko arduradunek hemen ere aukera hori eskaini ahal izatea. Oraingoan, hiruzpalau gaztek eman dute izena.

**Argibide gehiago nahi izanez gero,
Biteri Ikastetxera zuzendu zaitezke,
honako ordutegian: 11:00etatik-12:30era
eta 14:30etik aurrera.**

EGITARAUUA
KASTAROA 2000/2001

- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika
- Internet
- Microsoft project
- Autokad
- Programazio informatika
- Ingeles eta euskara multimedia
- Gestio kontablea
- Giza baliabideen administraketa
- Zerga gestioa
- Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa
- Musika informatika (MIDI Sistema)
- Enpresa Zientziak
- Ingeniaritza
- Laguntza eskolak

Forcem eta Hobetuz eko ikastaroak
%100eko dirulaguntzak aktiboan
dauden langileentzako



Ferrerias. 943 79 87 62

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57



AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1
20500 Arrasate-Mondragón
Tel.: 943 79 35 33
Fax: 943 79 06 28
E-mail: bastida@tsai.es

Mondrako entrenatzailea

RAUL LEIBA

“Lehenengo helburua igotzea da”

27 urte ditu eta aurten Mondrako lehen erregionaleko taldea zuzenduko du. Hamaika urterekin hasi zen Mondran jokalaria bezala eta lehen taldean sei urte egin zituen. Lehen talde hori hiru mailatan ezagutu du.

— **Nolatan erabaki zenuen entrenatzaile lanetan hasia?**

— Kadeteekin urtebetean aritu nintzen eta Juanina joan zenean aukera eman zidaten eta onartu egin nuen. Niretzat erronka bat da eta horrek animatu ninduen; gainera, jokalaria ezagutzen nituen.

— **Zeure taldekide izan direnen entrenatzaile izatea, ona da?**

— Eurek badakite non dagoen bakoitza. Errespetu handiagoa dago gure artean, elkar ezagutzen dugulako.

— **Nola ikusi duzu taldea, Arrasate Hiria txapelketan?**

— Lehenengo partidari uste ona baino erritmo handiagoa jarri zioten jokalariek; astebete baino ez generaman entrenatzen eta ez nuen hori espero. Bigarren partidari, berriz, lehenengo zatian oso ondo, eta lau eta huts amaitu ahal izan genuen.

— **Zein asmo duzue?**

— Lehenengo helburua igotzea da. Hamasei talde daude eta bost, elkarrekin borrokan arituko gara; beraz, denboraldi osoan erregulartasunari eutsi beharko diegu. Espero dut lehenengo itzulia aurreneko hiru taldeen artean amaitzea eta gero goian jarraitzea.

— **Mondrak zein mailatan jokatu beharko luke?**

— Dituen bizi-tanleak izanda, hirugarren maila dagokio. Ni hirugarren mailan jokatzeko hasi nintzen eta bigarren B mailara igotzekotan egon ginen.



ERRUGBIA Herensugeak nagusi



Herriko errugbilariek lagunarteko partida jokatu zuten joan den larunbatean. Beteranoak eta seniorrak aritu ziren aurrez aurre eta nagusienek, Herensugeak, irabazi zuten: 35 eta 5. Hori horrela izanik, pentsa daiteke Herensugeak euren hurrengo neurketara joateko moduan daudela, izan ere, irailaren 23an partida izango dute Ospitalet de Llobregaten.

Seniorrak, berriz, larunbatean Elorrioren arituko dira.

tuko dute: igandean, 12:00etan, Lezoko Aierru taldearen aurka.

Denboraldia urriaren 8an hasiko dute Bernardoren mutilek eta hamasei jokalaria izango ditu bere aginduetara; iaz baino bat gutxiago, izan ere, Jon Akizuk taldea utzi eta Jesus Mari Herreroekin batera, kade-te mailako taldea entrenatuko du.

SASKIBALOIA Aldaketa gehiegi




Kenci Arrasate saskibaloia taldeak lagunarteko partidari ez zuen esku-

baloikoek haina zorte izan. Lau talderen artean lagunarteko txapelketa jokatu zuten eta arrasatearrak finalera iritsi ziren arren, galdu egin zuten Durangoko Tabirakoren aurka.

Bihar, ordea, lagunarteko beste partida bat jokatu dute Kenci Arrasate saskibaloia taldeko nagusiek. Beasainen aurka arituko dira arratsaldeko 19:30ean, Iturripen.

Horrez gain, larunbatean Debagoiena txapelketa jokatu dute Oñati, Bergara, Eskoriatza eta Arrasateko saskibaloia taldeek.

ESKUBALOIA Hasteko, bikain



Arrasate Eskubaloia talde nagusiak aurrendenboraldiko lagunarteko lehenengo partida jokatu zuen Bergaran eta 19 eta 22 irabazi zieten bergarrei. Irabazi arren, ordea, akats asko sumatu zituen entrenatzaileak, izan ere, partida jokatu arte lau entrenamendu bakarrik izan zituzten.

Asteburu honetan lagunarteko beste partida bat joka-

Arrasate Hiria saria, herrian



Mondra nagusitu zen Arrasate Hiria Sarian. 2 eta 1 irabazi zuten Raul Leibaren mutilek Udaren aurka.

bazi zuten Raul Leibaren mutilek Udaren aurka.

Mondra Futbol taldea



Itziar Arrieta
Atezaina
16 urte



Sokoia Azkarate
Atezaina
21 urte



Ane Lur Garin
Defentsa
14 urte



Maite Ormaetxea
Defentsa
16 urte



Lidia Gomez
Defentsa
15 urte



Mainer Barrutia
Defentsa
17 urte



Maitane Gallastegi
Defentsa
18 urte



Larraitx Madariaga
Defentsa
22 urte



Sulima Carabias
Erdilaria
15 urte



Alaitz Murua
Erdilaria
16 urte



Rakel Modino
Erdilaria
18 urte



Mainer Heriz
Erdilaria
19 urte



Izaskun Aranbarri
Erdilaria-Kapitana
18 urte



Maitane Roa
Erdilaria
14 urte



Ainhoa Gallastegi
Erdilaria
22 urte



Juli Martinez
Aurrelaria
20 urte



Araitx Etxabe
Aurrelaria
16 urte



Ohiana Sodupe
Aurrelaria
16 urte



Larraitx Kortabarria
Aurrelaria
14 urte



Jone Etxebarria
Aurrelaria
14 urte



Mainer Tena
Aurrelaria
15 urte



Maria Domingez
Aurrelaria
16 urte



Iratxe Vazquez
Ordezkarria



Esti Loiti
Entrenatzailea

Lehen errejionaleko neskek igandean hasiko dute 2000-2001 denboraldia. Deban jokatu dute lehenengo partida. Aurten taldean lau jokalar berri daude.

Margo eta eskulan ikastaroak aukeran



Hil amaieran, bi ikastaro jarriko dira abian.

Bata, udalak antolatzen duen marrazki eta pintura ikastaroa da. Irailaren 25ean hasiko da, eta datorren astelehenetik irailaren 22ra arte izango duzue izena emateko astia, Monteironen, 16.000 pezetaren truke. Amaia Bengoa Arte Ederretan lizentziatua izango da irakaslea, azken urteotan bezala. Marrazketa doikuntza irakatsiko da lehenengo; ondoren, oleoa izango da gehien landuko dena. Ikastaro amaieran, erakusketa egingo dute ikasleek Harresi Aretoan.

EKINEK ESKULANAK

Hori da udalaren eskaintza; baina, Ekin Emakume Elkar-teak ere abian jarri du eskulan ikastaro bat. Irailaren 26tik abenduaren 19ra izango da. Mila Akizu irakaslearen eskutik, egurra, laminak, margoak, panpinak, eztainua, zilarrak, beruna eta beste hainbat materialekin benetako artelanak egiten ikasteko aukera izango duzue.

Izen emate epea zabalik dago. Ekin elkartearen egoitzara joan behar duzue, irailaren 25a baino lehen.

Inoiz ez da beranduegi ikasteko



Herriko nagusiek ondo pasatzeko modua izango dute ikastetxean.

Helduen Heziketa Ikastetxeak hilabete honetan hartuko ditu aurtengo ikasleak. Ez dago matrikulazio eperik: parte hartu nahi duenak urte osoan izango ditu zabal-zabalik Ferrerías 28ko ateak. Ikasturte hasieraren eguna zehaztu gabe dago oraindik, lehenengo taldeak antolatu behar direlako. Baldintzak, 18 urte eta ikasteko gogoia izatea. Eskolak doan ematen dira.

Bi eratako ekintzak

eskaintzen ditu ikastetxeak. Batetik, Lehen edo Bigarren Hezkuntzako Eskola Graduatuak lortu nahi duten helduei zuzendutako eskolak daude: alfabetatzea, oinarriko ezagutzak eta FP1-klinika laguntzaile titulua ateratzeko prestakuntza.

EDADETUENTZAT

Baina, herriko nagusiendako txoko berezia prestatu du ikastetxeak. Egunean bi orduz,

informatika, hizkuntzak, eskulanak eta beste hainbat ikasgai lantzeko aukera dute edadetuek, entretenimendua eta jakituria uztartuz. "Aisialdirako aukera paregabea izateaz gain, nagusiek euren adimena mantentzeko oso lagungarriak dira saio hauek", dio idazkariak, Lourdes Jauregialtzok. Ez dago adin mugarik: aurtengoa, 92 urteko ikasle bat ere izan dute.

Arrasatearra pozik San Martin Ferixan

Saririk etxera ekarri ez, baina inpresio ona, hori behintzat jaso zuen Kontxi Berzibarrek, Bergarako San Martin Ferixan parte hartu duen arrasatear bakarrak: "Saria beti da eskertzekoa, baina niretzat jendearen estimazio ona da garrantzitsuena. Bergara, bigarren Arrasate bat da niretzat, eta gustura joaten naiz ferixara", esan digu Kontxiak.



Begarako txapelketan parte hartzea tradizio bihurtu da Bedoñako "Bidasoro" baserriko emakume honentzat; aurtengoa, 13. aldiz erakutsi ditu Bergaran bere barazki eta gaztak. Bera da, gainera, feria horretara aurkeztu ohi den mondragoe-tar bakarra, eta sarritan irabazi izan du sariren bat, bai barazkiekin, bai eta gaztekin ere.

IDOIA AGIRRE (HISTORIALARIA)

“Herritarren parte hartzea eskatzen dut”

Idoia Agirre historialaria Iruñean jaio eta Gasteizen bizi da, baina datozen lau hilabeteotan Arrasaten emango ditu ordu franko, gehienbat IMiko lokaletan. Izan ere, Idoiak egingo du Arrasateko Udalak bultzatutako “Arrasateko Emakumeak XX. mendean” azterketa.

—Zerk erakarri zintuen deialdi honetatik?

—Emakumeon inguruko historia azterketak oso gutxi egiten dira, eta aukera polita iruditu zitzaidan emakumearen inguruko ikerketaren alde zer edo zer egiteko.

—Aurkeztu zuk zeuk azterketa hau.

—Arrasaten XX. mende osoan emakumeek izan duten esperientzia eta testigantza jasotzea da helburua. Horretarako, arlo guztiak arakatuko dira: ekonomia, kultura, hezkuntza... Kulturaltzat ditugun egoerak eta rola zergatik sortzen diren ikertuko dut: etxeoandarearen papera zergatik sortu den, Arrasateko feministen ekarpena edo sexuaren araberako rol banaketa. Adibidez, segurutzat jotzen da gizona lanean eta emakumea etxean izan behar zirela, baina ez da egia: emakume askok etxetik kanpo egin izan du lan.

—Zein iturri erabiliko dituzu?

—Liburu, aldizkari eta artxiboez gain, herritarren parte hartzea eskatu dut, euren istorioak konta diezazkizaten. Gizonezkoen historia jendaurrean eman den bezala, emakumeona pribatuan gertatu da, eta idatzizko iturri ofizialetan zailagoa da hori aurkitzea.

—Elkarrizketek zenbaterainoko



garrantzia dute?

—Gauzak argitzeko balio dezakete. Emakume asko dauden heinean, azterketa ez da Arrasateko emakumearen ingurukoa, Arrasateko emakumeen ingurukoa baizik. Gainera, mende osoa hartzen du. Hori dela eta, esperientzia desberdin ugari izan dira.

—Herriko emakume esanguratsuak ere ikertuko dituzu.

—Bai, baina hirietan ez bezala, herrietako emakume esanguratsuak herritar normalak izaten dira. Emakume guztion papera da garrantzitsua, eta horietan sakonduko da.

—Zein izango da azterketa horrek gerorako utziko duen ekarpena, adibidez, aukera berdintasunean?

—Egoera zehatzak ezagutu eta zergatik gertatu diren galdetzen lagunduko du azterketak. Ezagutzen lagunduko du, eta, ezagutzen dugun neurrian, errazagoa izan daiteke aukera berdintasunaren alde lan egitea eta konponbideak aurkitzea.

“Ezagutzen dugun neurrian, aukera berdintasunaren alde lan egitea erraztu dezake”

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• 2000-2001 ikasturterako lan-kidetza-bekak. Epea: irailak 29.

• Gizarte Ekonomiako enpresatan (kooperatibetan) bazkideak sartzeko dirulaguntzak. Epea: irailak 30.

• Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eskumenekoak diren gaietan, europar politika arloan prestakuntza eta ikerkuntzarako bekak. Epea: urriak 4.

• 2000-2001 ikasturtean unibertsitateaz kanpoko ikasketalaguntzetarako deialdia. Epea: urriak 31.

• Unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketak batzuk egiteko urteroko dirulaguntzak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: urriak 31.

■ LANA

• Bilboko Arriaga Antzokirako zuzendaria behar da. Epea: irailak 18.

• Oñatiko liburutegian, haur liburutegiko arduraduna behar da. Epea: irailak 19.

• Orioko Udalak kirol teknikaria behar du. Epea: irailak 19.

• Huarateko Udalerako kirol koordinatzailea behar da. Epea: irailak 20.

• Lizarrako Udalerako gizar-te langilea behar da. Epea: urriak 11.

■ IKASTAROA

• Donostiako Hezkide Eskolak urteroko ikastaroak antolatu ditu: aisialdirako begirale eta zuzendaria, susperketa sozio-kulturala, edadedun pertsonen begiralea, tratu txarrak haurtzaroan, gaixotasun mentala, kale ekintza, hezkuntza interkulturala... eta beste hainbat ikastaro. Programa osoa bulegoan duzu.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

asteko filma



La Tormenta Perfecta

(The Perfect Storm). EEBB, 2000. Akzioa. **Zuzendaria:** Wolfgang Petersen. **Aktoreak:** George Clooney, Mark Wahlberg, Diane Lane. 13 urtetik gorakoentzat.

HARIA

Gloucester, Estatu Batuak, 1991ko urria. Billy Tyne, arrainontzi bateko patroia, bere lanbidearen alde garratzen ari da dastatzen: itsas zabalean egun luzeak eman ondoren, lau txakurretan ordaindutako arrainak eta arrantzale gogaituak baino ez dakartzatza portura. Halako batean, arrantzaleak ausartzen ez diren gune batera joango da. Baina, klima aurka izango du.

KRITIKA

Hollywoodeko udako apustu gogorrena izan da film hau. Efektu bereziak dira filmeko protagonistak, 1991n izan zen historiako ekaitzik bortitzena gogora ekartzeko. Hala ere, ez gaude teknologian oinarritutako film inozo horietako baten aurrean; teknologiak, kasu honetan, hezur-haragizko jende normalaren drama indartzeko erabili dira, behar den bezala. Pertsonaien karakterizazioak hainbat topiko biltzen ditu, baina, hala eta guztiz ere, sinesgarriak dira, eta erraza da bizi duten egoerarekin identifikatzea. Ikuskin zirrargarria benetan, batez ere "olatu perfektuak" pantaila urpetzen duenean.

irakurle eta entzule

Iturria: Jungla Disc eta Hire

diskoak

BIZITZA TRISTE ETA EDERRA

Joxe Ripiau. Esan Ozenki Records.



Maiatzean kaleratu zen, baina merezi du disko honi bigarren entzualdi bat ematea: taldeak banantzea erabaki du; beraz, hauxe da *Joxe Ripiau*ren musika testamentua. Lau diskotan denetariko doinuak jorratu -saltsa eta merengea, moldaketak, reggaea, ragamuffina...- eta mezu mamitsuak barreiatu dituzte, beti kutsu kritiko ukaezinarekin. Azken diskoa izango den honetan, doinu zingaroak dira nagusi, baina era guztietako erreferentziak hartu dituzte aintzat: japoniar kulturaren jakituria Internetek sortzen dituzten nahasteekin, ijitoen zeresanak armen aurkako alegatoarekin... agertzen dira. Gogoan edukitzeko modukoa *Bi Bihotz* abesti zirraragarria, edo *Armen Kulturaren Aurka* entzutetsua. Irria eta mina elkarri eskua emanda, alaitasunari uko egin gabe.

liburuak

PAKO ARISTI

Venezuela, iraultza isilaren hitzak. Txalaparta arg. 150 orr., 1.800 pta.



Venezuelan, Hugo Chavez kolpista ohiak irabazi zituen gobernu hauteskundeak. Dirua, hedabideak eta mundua aurka baitzitzen; venezuelarrak, ordea, alde. Iraultza isil horren nondik norakoak

jakiteko asmoz, Venezuelen igaro zuen denboraldi bat Pako Aristi kazetari eta idazleak, aldaketa sakon hori eragin zuen herriaren giza aurpegia hausnartu guran. Eta hamaika itxuraren azpian errekonozitu zuen Aristik giza izate hori. Paradoxaz betetakoa bezala margotzen du Aristik gizarte venezuelarra. Gaur egungo erreferentzia kulturalak erabiltzen ditu horretarako, eta baita ezagutu zituen istorio bitxi eta esanguratsuak ere. Amen batean irakurtzen den erreportaje antzeko liburuxka dugu hau, eta Euskal Herriarekiko gogoeta beti begi aurrean ipintzen zaigu.

asteburuan zer

kontzertuak

HARDCOREA JAMEN

Hardcore jaia izango da egubakoitz honetan Jam aretoan. 22:00etatik hasi eta batek daki zein ordu arte, hiru taldek alaituko dute asteburuko lehenengo gaua.

Oraingoan, *Shelter* taldea izango da izarra. Estatuatuarrak hauek hardcore melodikoak eman duen talderik egonkor eta fidagarrienetarikoa bat osaten dute. Euren azken diskoa, "Beyond planet Earth", kaleratu osteko atsedendialdiaren ondoren, bueltan da berriro *Ray eta Porcell* bikoa, *Don Fury*ren estudioetan grabatutako bilduma batekin: "When 20 Summers Pass", 1999.aren bukaeran. *Mantra* diskoan aireraturiko joeren jarraitzailea da hona-

koa, eta *Here We Go!* bezalako klasikoak ematen segitzeko prest daude.

Shelter-koak bezala, estatuatuarrak ditugu Ensign taldekoak: eskola zaharreko hardcore talde bat da, Jam aretoan ezagunak, *Sick Of It All*-ekin bira bat egin baitzuten.

Horrez gain, *Nil* talde lasartearrak bere diskoak gordetzen dituen erritmo bizkorak xahutuko ditu Jamen, *Nerea* bakarlariaren ahotzarekin laguntzarekin.



Orain LIRAINen

dena errazago izango duzu.

Oporrak amaitu dira eta beti bezala asmo

onez beteta zatoz; jana kontrolatu, kirola egin... Orain

LIRAINen zure asmoak betetzeko bidea errazten dizugu eta kurtsoa izugarritzko eskaintzez hasten dugu.

Gainera, LIRAINen zure osasuna gure helburua delako, gimnasioko matrikularen barne errekonozimendu medikua eskaintzen dizugu eta baita mediku-estetizista bat ere dietak jartzerako orduan, jarraipen personalizatua.

Aurten ez duzu inongo aitzakiarik zure asmoak ez betetzeko.

%30

eko beherapena gimnasioko matrikulan

Emakume gimnasioa

- Mediku zerbitzua
- Aerobic
- Mantenimendu gimnasia
- Power dumbell
- Sauna
- Makina aerobikoak
- Aretoko dantzak
- Masajea

%15

eko beherapena gorputz eta aurpegi tratamenduetan

- Drenaje linfatikoa
- Presoterapia (zirkulazioa)
- Berrindartzailea
- Zelulitisaren aurkakoa
- Hidromasaje-bainuontzia
- Azala garbitzea
- Zimurren aurkakoa
- Hidratazioa



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE
943 79 52 17

arrasate
irratia



**ASTELEHENETIK
OSTIRALERA**

- 09:00 **Egunon Arrasate**, albistegia Alazne Ostolazarekin.
- 09:30 **Prentsaren errepasoa.**
- 09:55 **Eguneko hitzorduak.**
- 10:00 **Igo autobusera**, Lehenego ibilbidea Aitziber Aranburuzabalarekin.
- 11:00 **Albistegia.**
- 11:15 **Igo autobusera**, Bigarren ibilbidea.
- 12:30 **Agenda, oharrak, eskelak...**
- 12:45 **Albistegi nagusia.**
- 14:00-18:00 **Errepika.**

Arrasate
Irratiak
eskelen
tarte
dauka

Deitu:

943 71 23 90

09:00 - 18:00

Herri telebistak ETBn

Aldaketa dezente izango ditu ETBko Bertatik Bertara saioak sasoi honetan. Has-teko, bi saio egingo dira izen horrekin: bazkalostean bata eta afalostean bestea. Edukiak eta aurkezleak, baina, desberdinak izango dira. Bazkalostekoa Nerea Iriartek aurkeztuko du, Elixabete Garmendiaren zuzendaritzapean. Gauekoan, berriz, Andoni Aizpuru izango da aurkezle eta zuzendari.

Arratsaldeko saioak guri bereziki interesatzen zaigun tarte bat izango du. Izan ere, astero-astero leiho bat irekiko die euskaraz lan egiten duten herri telebistei.

Unai Loidi kazetari aretxabaletarra arduratuko da tarte horretaz.



Unai Loidi

— Zer dela eta erabaki duzue leiho bat irekitzea herri telebistei?

— Gure zuzendariak beti izan du atxikimendu berezia herri komunikabideekiko eta oraingoan egoki iritzi dio lanean ari diren herri telebistei tarte bat eskaintzea, jendeak ikus dezan telebista txiki horietan zer egiten den.

— Zenbat herri telebista sartuko dira leiho horretan?

— Oraingoan, lau: Goiena Telebista, Xaloa Telebista, Tipi-Tapa Telebista eta Oarso Telebista.

— Nola agertuko dira, bakoitza hilean behin ala astero laurak?

— Astero laurak. Bakoitzak egin duen zati bat erakutsiko du, minutu erdian edo.

— Astean zein egunetan emango duzue?

— Asteazkenetan izango da, nahiz eta lehen aste honetan ostegunean eman behar izan dugun.

— Zer azaldu nahi duzue leiho horre-

tan?

— Telebista bakoitzaren "jokaldirik onenak". Aurreko astean lau telebistetan izan diren unerik deigarrienak edo berririk bitxiak erakutsi nahi ditugu.

— Zein izango da zure lana zehatz-mehatz tarte honetan?

— Astelehenero materiala jaso, formatua egokitu behar denean, egokitu, eta bakoitzetik tarte bat aukeratu. Tartearen eskema ere malgua izango da: telebista batek hiru zati on bidaltzen badizkigu, akaso hirurak eman beharko ditugu. Ikusiko dugu.

— Nola hartu dute herri telebistek zuen proposamena?

— Oraingoan, gogo handiz. Egiten duten lana beren esparrutik kanpo erakusteko aukera ematen zaie.

Badakizue, beraz! Asteazkenero herri telebistek leiho bat izango dute ETBn, Bertatik Bertara saioan, 14:15ean hasita.

Azken etxebizitzak salgai Antzuolan

90m² erabilgarriak

EZ GALDU AUKERA HAU!!

20.000.000 PTA

Lehen mailako materialekin egina. Leku ezin hobea.
Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**

Tel.: 943 73 05 25

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

GRUPO **RK UZ**


ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 


Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxe: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-Diseinua-
Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariaken** (Araba Ibilbidea, 20)
2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletoan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

--	--	--	--	--	--	--	--

pta.

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai, Udalpe kalean. 3 logela, kanpora begira, berehala sartzeko. Tel.: 943 79 15 57.

• Eskoriatzako Olazar kalean etxebizitza salgai. 83 m², berriztuta eta garajearekin. Tel.: 943 79 93 14.

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan, erdialdean, eta egoera onean. 3 gela, 2 komun, egongela-jangela eta sukaldea. Ganbara ere badu. Salneurri egokia. Tel.: 943 79 77 30.

• Etxebizitza salgai. 3 logela, desentsa, bainugela bat, sukalde-jangela. Guztiz hornitua, oso eguzkitsua. Berogailua du. Prezio negoziagarria. Tel.: 943 79 98 14. 21:00etik aurrera. Juan.

• Etxebizitza merkea salgai, Bergarako erdialdean. Tel.: 943 76 44 34.

3. Errentan emateko

• Logelak alokagai Eskoriatzan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 943 71 55 01.

• Etxea alokagai. 4 logela, bi bainu eta bi terraza handi. Guztiz berriztatua. Tel.: 646 79 56 19.

• Etxebizitza alokagai eskola politeknikotik gertu. Tel.: 656 71 09 74.

• Etxebizitza errentan emateko Aretxabaletan. Altxariari ipinita. Tel.: 943 79 04 86.

• Gela bat alokagai ikasle baten zatitza. Unibertsitate ondoan. Tel.: 943 79 36 63. Eguerdian deitu.

• Logela bat alokagai Deustuan. Tel.: 657 71 27 30 edo 943 79 60 51.

• Ikasleentzako etxea alokagai. Erdiko kale 60. ean. Tel.: 943 79 12 20.

• Komuna duen logela bat alokagai Oñatin, sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 943 78 28 62.

• Etxebizitza alokagai 4 ikaslerendako. Unibertsitatetik 5 minutura (oinez). Tel.: 669 83 94 68.

4. Errentan hartzeko

• Unibertsitateko 3 ikaslek pisua alokatuko lukete. Tel.: 943 81 54 45.

• Pisu bila nabil Arrasaten edo eskoriatzan. Tel.: 946 83 24 67 edo 627 64 75 26. Gaez deitu. Ainara.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Bi lagunentzako etxebizitza alokatu nahi nuke Arrasaten. Tel.: 676 551 343. Leire.

• Pisu bila nabil Arrasaten. Tel.: 943 03 53 00. Borja, laborategia.

5. Etxeak osatzeko

• Ikasle batek etxebizitza konpartituko luke familia batekin. Tel.: 945 13 75 44.

• Lagun bat edo bi behar ditugu, neska ahal bada, Aretxabaletako pisu eder bat osatzeko.

• Pertsona bat behar da Salamancan pisua osatzeko. Tel.: 617 93 08 44.

• Arrasaten etxebizitza konpartituko nuke ikasle edo langileekin. Tel.: 666 69 19 43.

• Pertsona bat behar da pisua osatzeko. Tel.: 943 67 05 48 edo 943 65 11 61.

• Logela bat hartuko nuke etxea osatzeko. Tel.: 94 444 53 13.

• Neskak behar dira Aretxabaletako etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 79 78 35 edo 627 64 27 13.

• Lagun bat bilatzen nabil etxebizitza bat betetzeko. Tel.: 943 77 13 20.

GARAJEAK

7. Saldu

• Txindoki dorrean garajea salgai, goiko solairuan. Tel.: 943 79 24 10.

9. Errentan emateko

• Kontzeziño kalean garaje leku bat dago alokagai, irekia da, aterik gabekoa. Tel.: 943 79 54 06.

• Garajea alokagai Uarkapen. Tel.: 943 79 84 35. Goizez edo gaez deitu.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdea 4, behean, 100 m²ko lokala salgai. Tel.: 943 79 42 65.

14. Errentan emateko

• Etxean eskola partikularrak emateaz aspertuta zaudela? Lokala bat

alokatzen dizut zure ikasleekin erosoago egon zaitezten. Tel.: 943 79 18 70.

LANA

17. Eskaintza

• Emakume batek umeak zaindiko lituzke arratsalde. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest bulegoak edo etxeak garbitzeko. Tel.: 655 73 54 85. Miriam.

• Prest nago umeak edo emakume helduak zaintzeko, eta baita portalak garbitzeko ere. Tel.: 943 79 48 06.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 646 76 01 66.

• Neska prest etxeak garbitu edo umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 15 11.

• Neska bat prest umeak zaintzeko, arratsalde. Tel.: 943 71 53 74.

• Klinika laguntzailea, geriatrian espezializatua, gaixoak eta nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 609 77 01 33.

18. Eskaerak

• Esperientziadun ile apaintzailea behar da. Presazkoa. Tel.: 943 79 03 63.

• Finantza-aholkularia behar da. 30 urtetik gorakoa. Kultura maila ona. Beste lanen bat ere izan dezake. Tel.: 945 14 06 07.

• Taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 61 64.

• Taberna batean sukaldari lanetan aritzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 61 64.

• Pertsona bat behar da 4 urteko neskatila bat zaintzeko Erguinen. Presazkoa. Tel.: 943 79 11 67. Goiara, lurrindegi berria.

• Aseguru kanpaina batek komertziala behar du Arrasaten. Neska edo mutila, euskalduna, 22 eta 40 urte bitartekoa behar du izan. Formakuntza kanpainaren esku. Interesatuak deitu 607 20 85 57 telefonora.

• Pertsona behar da posta bana-keta egiteko. Tel.: 943 79 01 86.

• Emakumea behar da 2 ume zaindiko arratsalde. Tel.: 610 36 95 32.

• Neska bat behar da sukaldean lan egiteko taberna batean. Tel.: 943 79 00 34.

• Jostuna behar dugu. Tel.: 943 79 89 32.

• Tabernan sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Medikuntza ikasle bat, gabez gai-
xoak zaintzeko prest. Tel.: 943 79
07 03, 943 79 23 17 (Ainara).

• Zerbitzari bat behar da Gatzaga
Gainen. Tel.: 943 71 55 22. Mari
Karmen.

• Ile apaintzaile bat behar da. Tel.:
943 79 49 72.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeleseko eskola partikularrak
ematen dira; talde mugatuak, egun
osoan. tel.: 943 79 18 70.

• Ingeles filologia ikasten dabilen
pertsona, ingelesezko eskola parti-
kularrak emango lituzke. Arrasaten
eta Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.
Jon Ander.

21. Eskaerak

• Pertsona bat behar da DBHko biga-
rren mailako eskola partikularrak
emateko. Tel.: 943 79 82 24.
22:00etan deitu.

MOTORRA

23. Saldu

• Volkswagen Golf 2GTi salgai, kilo-
metro gutxi eta egoera onean. Tel.:
943 79 40 53.

• Seat Panda salgai. SS-AC. Egoe-
ra onean. 225.000 pta. Tel.: 677
42 58 30.

• Cota 348 motorra salgai. Egoera
onean. Prezioa: 150.000 pta. Tel.:
33 42 58 30.

• Bigarren eskuko motorra salgai.
Derbi Varian. 40.000 pta. Tel.: 666
74 40 35.

• Quads Yamaha Blaster 200 c.c.
salgai. Hiru hilabete. Prezioa:
575.000 pta. Tel.: 626 00 54 33.

• Nissan King gab 4x4 2.500 die-
sela salgai. 174.000 km. egoera one-
an. King Top-arekin. Tel.: 607 95
79 11 edo 626 22 07 57.

• Trial Gas-Gas motorra salgai,
92koa. 125.000 pta. Tel.: 943 79
78 36.

• Furgoneta salgai. Ford Transit
"Sobrelevado". SS - AK. Tel.: 943
79 78 04-

DENETARIK

26. Saldu

• Aluminiozko bost llanta, estalki
berriekin. Opel Corsa edo Opel
Kadet-entzako berri-berriak dira. Tel.:
943 79 93 19.

• Canon EOS-300 kameraren zoom
28/80 objetiboa salgai. Estreinatua
gabe. Bermean dago. Prezio onean.
Tel.: 943 77 13 02.

• Sukaldeko mahaiak eta aulkiak,
2 ohe, hozkailua eta 2 berogailu sal-
gai. oso merke. Tel.: 943 79 82 47.
Ez bagaude, erantzungailuan uzti
mezua.

• Urtebeteko mendiko bizikleta sal-
gai. Prezio egokia. Tel.: 943 79 61
25. Jose Mari.

• Piragua salgai, "invader" mode-
lokoa. Hasten direntzako apro-
posa. Tel.: 659 93 53 69.

• Sukalde industrialia salgai, Fagor
markakoa; lau su ditu. Tamaina txi-
kia. Tel.: 943 79 83 48.

• Besaulki bat salgai, tresilloa
(195x90) eta chaise longue (90x156).
Modernoa eta berria. 200.000 pta.
Tel.: 943 77 19 98.

29. Eman

• 4 txakurkume dauzkat emateko.
Tel.: 943 79 55 07.

30. Hartu

• Bizikleta bat nahi dugu, berdin da
zein egoeratan dagoen. Tel.: 943 79
32 29. Ander.

31. Galdu

• Angora arrazako katu bat galdu
zen hilak 7an, ostegunean, Arrasa-
ten. Marroi-zuri kolorekoa eta nahi-
ko handia. Tifus izena dauka. Tel.:
943 79 36 82.

32. Aurkitu

• Lentilla progresiboak agertu dira
Maalako Errebalako denda batean.
Tel.: 943 79 50 32.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

• Familia bat behar da, datorren ikas-
turtean ikasle bat bere etxean har-
tzeko. Tel.: 943 83 37 45. Josu.




AMAGARA

Erdiko kale, 54 behea

Tel.: 943 79 09 09

ARRASATE



Maritxu Kajoiko eskaintza berezia

SOLARIUM-A:
6 saio +1 oparian = 6.000 pta

Adi! Irailaren 15tik urriaren 15era.

Eta gainera, gure Estetika Zerbitzuak eskaintzen dizkizu:

- Aurpegi eta gorputzerako tratamendu bereziak.
- Depilazioa argizari bero nahiz hotzarekin, tratamendu progresiboan.
- Depilazio elektrikoa, Blend sistemarekin.
- Makilajea, manikura, betileen permanentea eta tintea.
- Ezpan, begi eta bekainen makilajea, permanente eta guzti.
- Kontsulta medikoa eta terapia bereziak.



Mondragoeko Heriz Heriz familiako hainbat kide ekarri ditugu aste honetan gure argazkien tartera.

1920. urte inguruan atera zen, San Josepeko erromerian. Heriz Heriz familiak urtero-

urtero San Josepeko erromeriara joateko ohitura zuen.

Ezkerretik hasita, honakoak dira argazkiko lagunak: zutik, aurreneko ilaran, Eusebio Heriz, Basilio Urtzelai eta Patxi Otadui. Bigarren ilaran, Agustin Heriz Lamarain, Maria Agirre, Cruz Heriz, Regina Heriz eta Isidro Heriz daude.

Hirugarren ilaran, mari-neltxoaz jantzita daudenak, Gabriel eta Luis Heriz Agirre dira; hurrengo laguna, berriz, Eloy Urtzelai Heriz. Ondoko bi neskatilak, Teresa eta Carmen Heriz Lamarain dira eta tente dagoen emakumea, Celestina Lamarain.

Behean eserita, Juana

Heriz dago eta ondoan, Mertexte eta Jesus Otadui Heriz ditu. Bukatzeko, azken biak Eloisa Heriz eta Maria Heriz Lamarain dira.

*Argazkia eta berriemailea:
Mari Tere Mugika.*



<http://agila.opel.es> 902 11 99 00

ja, ja

aja!

opel agila berria hasieran ja ja, gero aja!

Hasiera baten, Agila berriak berezi samarra eman lezake, baina hiriko auto adimendun baten aurrean gaude. Auto txikia da, baina kanpotik; izan ere, Agila berriaren barrua zabala da oso, edozertarako tokia dauka. Atzeko eserleku benetan erosoak luraren mailan tolesta daitezke, eta 1.250 litroko tokia egin. Baina, horretaz gain, jarlekuen alturak primerako ikuspen eta maniobralitatea eskaintzen dute. Zenbat eta hobeto ezagutu Agila berria, orduan eta gehiago errepikatuko duzu "aja!"

Zataz zeure kontzesionariora eta deskubritu.

OPEL

TALLERES OLA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86

Zure ametsetako trajea dugu...



Aukerarik zabalena
festarako soineko,
barruko moda
eta osagarrietan.

Casa Cenciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE

Tel/Faxa: 943 79 12 62

orain

2.495.000 pta*.

- ABS
- 4 airbag
- Polenaren aurkako filtrodun aire girotua
- Audio ekipoa, bolantean mandoa duela
- Lagunduriko direkzioa
- Lainokontrako argiak
- Margo metalizatua
- Atzerako ispilu termoelektrikoak
- Quadralink atzeko esekidura
- Itxiera zentralizatua urrutirako agintearekin
- Gidariaren eserlekuaren altuera, elektrikoki egokitzeko aukera

zeuk erabaki,
gasolina 16v 1,8 115cv edo
turbodiesel intercooler 90cv, 4, 5 ate edo wagon.

fordmondeo zetec



*Prezio gomendatua ekainaren 27tik uztailearen 31 arte Penintsulan eta Balear Uharteetan. BEZ, garraioa, kotzesionarioaren ekarpena eta Prever Plana barne.

MUGARRI

DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATI
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 5